

BAPATEKO BERTSOEI BAPATEKO EPAIA

«Jokoa ez da errenta, hobe da oiloa parrilan erreta» dio herri-esaerak. Alabaina jokotik aski du bertsolaritzak; areago oraindik txapelketak. Orduan jokoan, lehian, nor nori nagusituko, norgehiagoka aritzea, zilegi ezezik, lege ere badela esango nuke. Hala zen lehen, hala da orain eta halaxe izango dela dirudi gero ere. Eta hain neurgaitza den hitzaren joko berezi honetan epaileei dagokie nor baztertu, nor aurrerako utzi eta, azken batez, nork behar lukeen txapeldun erabakitzea.

Guk dakigunez, bertsolaritzaz ditugun lehen albisteak J.I. Iztueta renak dira, *«Guipuzcoaco dantza gogoangarrien condaira edo historia»* liburuan datozenak, hain zuzen. Zaldibiarraren hitzetan, bertsolarien arteko lehiak azaltzen dira. Dirudienez, garai hartan, bertsolarien edozein saio, baita udalen batek deiturik antolatzen zirenak ere, joko eta norgehiagoka bilakatzen ziren. Iztuetak, Amezketa ko Zabala eta Hernaniko Txabalategiren arteko bertso-lehia azaltzen digu besteak beste. Epaille eta guzti egin zen. Bakoitzak bere epailea hartzeko eskubidea zuen, kontizu, baina hirugarren bat ere badaezpada jartzen zuten, epaia zuzena izan zedin. Zabalak Iztueta bera hautatu zuen, baina hau gaiso edo zela eta, Fernando Amezketarra deitu. Txabalategik, berri z, Aizarnazabalgo sakristaua hautatu zuen. Billabonako alkateak, hemen egingo baitzen bertso-saioa, Jose Mendizabal Tolosa ko apaiza izendatu zuen zeregin horretarako. 4000 lagun en aurrean ihardun omen zuten bi ordutan, *«batac besteari asmatu al citzaten itz gairic nequecenac iriquiaz, nondic eta nola alcar naspilatuco zuten aleguiñic aundienac eguiten cituztela»*.

Entzuleek, haien lanaz oso pozik, biak berdinean uzteko nahia agertu omen zuten eta epaileek ere halaxe erabaki. Bakoitzak bertsoz eman zuen epaia. Fernando Amezketarrarena honela bukatzen da:

*«Utzi bear ditugu
Biac berdin-berdin;
Guipuzcoa guciac
Ardezan atsegin».*

Guk ere pozik egingo genuke, guztiak nor baino nor arituz gero, pastela zati berdinetan banatzea, baina txapela dago joan eta ez pastela. Hau txapelketa da eta ez eztei bukaerako pastel zatitzea. Beraz, hobekien aritu diren hiruzpalau nahiz gehiagoren artean txapela nork jantzi erabaki behar. Txapelketako aurreko saioetan ere burua hartara jarririk, bertsoetan bete-betean murgildurik, garunak ederki estutu beharra du epaileak bere lana ongi betetzekotan. Zer izan behar den kontutun? Epaimahaikook, zortzi-bederatzi bilera egin ondoren eta aspaldi eta berriki landutako hainbat txosten aintzat harturik, bat etorri gara irizpideetan. Hauek sei ataletan bereizi ditugu:

1.- Irizpide nagusiak

Bertsozaleak berekasa egin ohi duen antzera jokatu behar du, oro har, epaileak: bertsoak entzun, dastatu eta beregan sortzen duen inpresio hori nolabait kuantifikatu. Horretarako, lagungarritzat, honako eskema hau finkatua eta onartua genuen aurreko txapelketatik:

Aparta	10/9	puntu
Oso ona	8	“
Ona	7	“
BALEKOA	6/5	“
Txar samarra	4	“
Txarra	3	“
Oso txarra	2/1	“

Beraz, baleko bertsoa akats eta meritu nabarmenik ez duena, nahiz akats hainbat meritu dituen da eta hori hartzen da hortik gorako eta beherako puntuazioaren oinarri eta abiapuntu.

2.- Gaiari dagozkion irizpideak

Gaiak logika baten barruan eskaintzen dituen bide guztiak onargarri dira.

Gaia zabaltzea, xehetasun berriz hornitzea saritu egingo da, baita elkarren arrazoiei ongi jarraitzea ere, gaiaren barruan beti ere.

Bertso bakoitzaren puntutik punturako lotura eta bertsoak elkarren osagarri izatea aintzakotzat hartzekoak dira.

Emandako gai edo ofizioari dagokion hizkera edo erregistroak ongi erabiltzea oso ontzat joko da (hitanoa, hizkera jantzia, herrikoia, talde berezien argota...).

Gaitik kanpo aritzea eta topikoak gehiegi erabiltzea ez dira ontzat emango.

3.- Hizkerari dagozkion irizpideak

Alde hau bereziki ikertua izan denez gero, xehetasun ugari datoz epaimahaikoen txostenean. Horregatik, gehiegi ez luzaitzeko, honako hauek aipatuko ditut soilik: Bertsolaritza ahozko jarduna denez gero, ahozkoaren arau fonetikoak betetzea gomendatzen da (ezta, etzen, enuke, baita).

Hizkerak arina eta bizia izan behar du, elipsiak ongi eginez eta hariari jarraitzeko beharrezko ez dena isilduz.

Joskera aldetik, hizkuntzak, behartu gabea izan behar du, berezko isuri edo jariora bortxatu gabe.

Erdarakadak ez inola ere, baina bai maileguak, bereziki gaiak, ofizioak hartaraturik, egoki datozenean.

Esaldi jatorrak erabiltzeaz gain, sormen-lanean egiten diren aportazioak saritzea bidezko da.

Ahozko tradizioaren araberako laburdurak, bokal arteko konsonante galtzeak... ez dira gaitzetsiko, baina beti ere jendaurreko hizkera txukun eta zainduaren gutxienekoa beharko da zaindu. Harira etortzeak, koerentziak eta berezko isuri gozoak barkagarri bihurtzen ditu hor gertatzen diren ustezko akatsak.

Figura literarioen erabilera ere oso gomendagarria da.

4.- Neurriari dagozkion irizpideak

Edozein bertso motak du, berez, 10eko nota lortzeko aukera.

Epaimahaiak kontutan izango du bertso motaren zailtasuna, onerako nahiz txarrerako.

Zenbait doinuk bestelako neurritarako bidea ematen duen arren, zortziko txikiaren neurria 7-6 silabatakoa da.

Etena, doinuaren arabera, beharrezkoa izan daiteke edo ez.

Azkenez, dieresiak, sineresiak eta sinalefak aipatzen dira txostenean. Sinalefak kasu guztietan onartzen dira; diptongoak haustea eta hiatoak diptongo bihurtzea, usadio handikoak izan ezik (joan, behar...), ez dira onartzen.

5.- Errimari dagozkion irizpideak

Zenbat eta hoskidetasun handiagoa, errima hobetzat joko da, atzizkien kasuan izan ezik.

Poto guztiak ez dira berdinak. Baina beti izango da potoa zigorgarri, puntu batetik hirurako nota jaisteaz.

6.- Beste irizpideak

Azken atal honetan, bertsoaren bukaerako arrazoia jotzen da bertsoaren ardatz. Mahaikoek bertsoa epaituko dutela soil-soilik adierazten da; ez bertsolari bakoitzaren estilo edo estereotipoak. Doinu eta kantaera egokia sarigarri gerta liteke. Kantatzen hasterako denbora luzeegia eta puntutik punturako isiluneak, ordea, itsusi ematen dute.

Azken urteotan epaimahaikideok, geure buruak trebatu nahirik eta erantzunkizunak hartaraturik, bilera eta ariketa ugari egin izan dugu. Hala ere batzuen eta besteen iritzia alde handikoak izaten dira batzuetan. Finaletako epaiarekin bat ez datorren jenderik ere izaten da. Garai berriko txapelketei dagokienez, Amurizak irabazitako lehenengoaz inork ez zuen zeresanik. Hari txapela eman zioten epaileek bete-betean asmatu zutela ez dago esan beharrik. Bigarrenean Lopategi eta biek goi-goian ihardun zuten eta gauzak ez zeuden hain garbi askoren ustez. Azken bi txapelketen ondorengo egunak istilutsuak izan ziren, ordea, batez ere azken txapelketaren ondorengokoak, jende asko ez zettorrelako bat epaimahaikoen erabakiaarekin. Nik neuk lehen ere esan nuen, azken txapelketan, epaileek hoberenari eman ziotela txapela, nahiko estua izan bazen ere. Lehenagoko txapelketetan, Xalbadorri ez ziola orduko epaimahaiak merezi zuenik eman entzun izan dugu behin eta berriro. Eta 1961eko txapelketan Jon Azpillagak hirugarren ezezik, bigarren edo lehenengo beharko zuela merezimenduen arabera. Dena dela, epaia ia beti zuzena izan ohi dela uste dut. Batek edo bik huts egin lezakete, agian, baina epaile guztiek batera huts egitea zaila da.

Azken batez, Fernando Amezketarrak epaia eman zuenean bezala, neure gogoak kopla txiki honetan bildu nahi nuke:

*Nori berea dugu
epaileok lege,
onena txapeldun ta
bertsoa errege.*

*LUIS BARAIAZARRA TXERTUDI
Markina-Xemein, 1993-X-14*